

Txotxongilo teknikak ezagutzeko 'Katilukadak' emanaldia dago bihar

Kontakatilu taldeak egitasmo berria aurkeztuko du Zabalotegi aretoan; ikuskizuna 18:00etan hasiko da eta sarrerak hiru euro balio du


MIRIAN BITERI | BERGARA

Txotxongiloak gustuko dituztenek hitzordua dute bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan. 18:00etan hasita, Kontakatilu taldeak *Katilukadak* izeneko emanaldia egingo du han. Sarrerak hiru euro balio du.

Mikel Ibartzabal bergararren eta Aitor Ormaetxea bizkaitarraren proiektu berria da *Katilukadak*. Ibartzabalek dio familiendako "akzioz beteriko" ikuskizun entreenigarria dela. Txotxongiloak manipulatzeko bost teknika ezberdin erakusten dira bertan, kontakizun berberean hari batekin lotuta: *Katilu* da protagonista, huts egin duen bertsolaria, eta azkenaldian txotxongiloak hartu ditu bizibide.

Emanaldi didaktikoa

Haren esanetan, "emanaldi didaktikoa da biharkoa. Txotxongiloak erabiltzeko dauden modu ezberdinak azaldu nahi dizkiegu Zabalotegira joaten direnei. Ipuintxoen bidez argi eta garbi bereizten



Txotxongiloak dira *Katilukadak* emanaldiaren protagonistak. | MIKEL IBARTZABAL

dira dauden teknika ezberdinak". Ibartzabalek eta Ormaetxeak manipulatu dituzte emanaldian parte hartuko duten txotxongiloak.

Kontakatilu taldeak helburu bikoitza du: batetik, umeei txotxongiloak erabiltzen eta egiten irakastea; eta bestetik, emanaldiak egitea. Bihar aurkeztuko dutena

bigarren helburu horren barruan sartuta dago. Ordubete inguru iraungo du eta bigarrenez antzeztuko dute; Ajangizen (Bizkaian) estreinatu zuten.

Askotariko filmak ikusi ahalko dira egunotan

Zinemazaleek lau film dituzte datozen egunotan ikusgai: etzi, domeka, 17:00etan, *Niko eta izarretako bidea* animaziozko filma emango dute Zabalotegi aretoan; eta 19:30ean, Roman Polanski zuzendariaren *El escritor*. Gaztetxeko zineklubaren barruan, egun berean, Mathieu Kassovitz-en *El odio* filma ikusi ahalko da, 18:00etan.

Bestalde, egueneko zineklubean, *La antena* izango da Zabalotegin, 20:30ean. Sarre-rak bi euro balio du.

Aranzadiren erakusketa hilaren 30era arte zabalik

Aranzadi ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko antolatutako arte erakusketa hilaren 30era arte egongo da zabalik Aroztegi aretoan, honako ordutegian: martitzenetik egubakoitza, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara bitartean.

Ikastolarekin lotutako 56 artistaren lanak ikus daitezke han. Irakasle, ikasle eta gurasoek egindako artelanak dira guztiak.